

ENDESA-IBERDROLA. Bat egiteko proiektua zapuztu bezain laster, Iberdrolaren eta Endesaren kotizazioak nabarmen egin du gora burtsan. Euskal enpresa erosteko eskaintzak aurkezteko aukerak ere bultzatu du haren kotizazioa.

Burtsak %11tik gorako igoerarekin saritu du Iberdrola, fusioa hausteagatik

Erredakzioa | BILBO

Burtsak ere pozik hartu du Endesa-Iberdrola enpresek bat egiteko proiektuaren haustura. Bi enpresen kotizazioak nabarmen egin zuen gora atzo, batez ere Iberdrolarenak, %11,11 irabazi baitzuen, akzioko 16,22 euroraino. Endesaren akzioen balioa %2,81 handitu zen.

Inbertsoreek sekula ez dute begi onez ikusi fusio proiektua. Iragarri zenetik atzo arte, Endesak balioaren %11 galdu du, eta Iberdrolak %5 inguru. Bi enpresetako presidenteeek fusioa bertan behera uzteko erabakia jakinarazi eta hurrengo egunean, kotizazioak goranzko joera nabarmena erakutsi du, eta Iberdrolaren kasuan, fusioa iragarri aurreko balioaren gainetik kokatu da.

Iberdrola erosteko eskaintzek bidea zabalik

Merkatueta aztertzaileen ustez, bat-egitea zapuztuta, Iberdrolak beste enpresaren baten erosketa eskaintza jaso lezake orain. Aukera horrek erakargarriago bilakatzen du euskal enpresaren akzioa Burtsan, eta erosketak bultzatzen ditu.

Orain Iberdrolak 13.200 milioi euro balio du burtsan (2,2 bilioi pezeta), eta prezio hori ordaintzeko modukoa izan liteke Europako argindar enpresa handi batentzat. Horrez gain, enpresa ekonomikoki saneatuta dago, zorpetze txikiarekin, eta inbertsio garrantzitsuen jabe da Latinoamerikan.


Erosketa eskaintza aurkeztu lezaket enpresen artean Repsol-YPF Espainiako petrolio konpainia dago. Hala ere, enpresa horrek iragarri du orain ez direla aukera hori aztertzen ari.

Repsol bi aldiz saiatu da Iberdrola bereganatzen: lehenengo 1999. urtean, eta bigarrena iaz, Gas Natural enpresa filialak egindako bat egiteko eskaintza bidez, Endesa-Iberdrola proiektuaren berri bezain laster. Bi saialdi horiek huts egin ostean, Repsol-YPFk «beste bide bati» jarraituko omen dio argindar merkaturan sartzeko.

Merkatueta inbertsoreek posibilitate handiak ikusten dituzte atzerriko konpainiaren batek euskal enpresa erosteko eskaintza bat aurkezteko

Burtsaren erantzuna

Iberdrola ▲ +%11,1



* Espainiako Balore Merkaturaren Batzordeak ordu batzuz eten egin zuen bi konpainien kotizazioa.

Endesa ▲ +%2,8



* Espainiako Balore Merkaturaren Batzordeak ordu batzuz eten egin zuen bi konpainien kotizazioa.



DAVID AGUILAR/ EFE
Josu Jon Imaz arabera, bat egitea PPren operazio politikoa izan zen.

ERREAKZIOAK

XABIER ARZALLUZ (EAJ)

«Madrilgo Gobernuaren porrota izan da»

«Fusioa Aznar eta Martin Villaren erabakia izan zen, eta haustura Gobernuaren porrota izan da, lege mordoiloa neurtu ez zuelako eta akziodunen interesak aintzat hartu ez zituelako».

GORKA KNÖRR (EA)

«Oriolek kargua utzi behar du»

«Iñigo de Oriolek ezin du minutu batez ere iraun karguan, barregarri geratu delako eta Iberdrolako akziodunei iruzur egin nahi izan dielako».

NICOLAS REDONDO (PSE-EE)

«Abertzaleek operazio politikoa zela zioten»

«Haustura berri ona da herri-arrantzat. Abertzale batzuek uste zuten fusioa Euskadiren aurkako operazio politikoa zela, Madrilen egiten den guztiaz uste duten bezala».

CARLOS ITURGAITZ (PP)

«Gobernuak lehiaren oinarriak bermatu ditu»

«Gobernu zentralak lehiaren oinarriak bermatu baino ez du egin, eta horretan bikain jokatu du. Guk enpresa horien erabakiak errespetatu egin behar ditugu».

JAVIER MADRAZO (IU-EB)

«Enpresek presioa egin nahi diote Gobernuari»

«Enpresek hartutako erabakiarekin Gobernuari presioa egin nahi ote dioten susmoa dut, operazioa beste momentu batean eta baldintza egokiagoetan egin ahal izateko».

Sindikatuak pozik agertu dira, eta Gasteizek «porrot itzela» azaltzeko eskatu dio Madrili

Erredakzioa | BILBO-GASTEIZ

Eusko Jaurlaritzak «porrot nabariari» buruzko azalpenak emateko eskatu dio Madrilgo Gobernuari. Josu Jon Imaz bozeramaileak atzo esan zuenez, Endesa-Iberdrola bat-egitea «PPren operazio politikoa» izan zen, «bi enpresen etorkizuna baldintzatzeko» helburuz «herriar eta akziodunen interesen aurka» egindakoa, eta «porrot itzela izan da».

Madrilen Rodrigo Rato ministroak egin zituen hausturari buruzko adierazpenak. Haren hitzetan, Gobernuak jarritako baldintzak «aurreikusteko modukoak» ziren, eta «ez zuten ustekaberik eragin behar».

Sindikatuaren aldetik, ELAko ordezkari Endika Montesek ohartarazi du Iberdrolako langileek oraindik kezkatu egoteko arrazoirik badutela, enpresa «salgai jarri delako, nolabait esateko». Sindikatu horrek uko

JOSU JON IMAZ

Eusko Jaurlaritzako bozeramaile

«Bat egitea PPren erabaki politikoa izan zen, enpresen geroa baldintzatzeko»

RODRIGO RATO

Espainiako Ekonomia ministroa

«Gobernuak jarritako baldintzak aurreikus zitezkeen, eta ez zuten ustekaberik sortu behar»

egin dio Madrilen Iberdrolako zuzendarekin egin beharreko bilera batera azaltzeari, «enpresaren egoitza Bilbon dagoelako eta, gainera, langileei ezin zaielako argibiderik eman prentsari eman ostean».

Carlos Trevilla EAEko UGT-ko idazkariak ere poza agertu du fusioaren porrotagatik: «Beti uste izan baitugu prozesu honen atzean industri proiekturik ez zegoela». «Enpresetako zuzendarien borondateari logika soziala eta ekonomikoa nagusitu zaizkio», azpimarratu du.

CCOOk ordezkari Julio Herrerak edozein fusio proiektu baztertu eta Iberdrolak «autonomiari eusteko» eskatu du: «Ez baitugu ulertzen nola argindar enpresa nagusietako batek beste batekin elkartu behar duen, gero inbertsioak eta egitura eraisteko».

LABen ustez, fusioa zapuzteko arrazoia «interes ekonomikoa Gobernuaren erabaki politikoaren aurretik» jartzea izan da. Sindikatu horrentzat, PPK bi helburu zituen fusioarekin: botere ekonomikoa kontrolatu eta Euskal Herritik ekonomia erabakiguneak kentzea.